

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

2019/03906 iragarkiaren zuzenketa, lan poltsak sortzeko deialdiari buruzkoa

2020ko otsailaren 19ko Alkatetzaren 69/2020 Ebazpenaren bidez, Iruña Okako Udalean aldi baterako zerbitzuak emateko administrari eta administrari laguntzaile gisa bi lanpoltsa sortzeko deialdiaren oinarriak zuzendu dira (2019ko abenduaren 11ko ALHAOko 142. zk.an argitaratu ziren), honela:

Administrarien lan poltsarako, administrari lanpostua betetzeagatiko lanbide esperientzia baino ez da baloratuko.

1. A) 10. oinarria. Lan esperientzia: Administrarien poltsa:

Gehienez 10 puntu lortu ahal izango dira.

a) Administrazio Publikoko lanpostu batean aritu izana, antzeko edo pareko eginkizunetan, hau da, administrari eginkizunetan:

0,40 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 6 puntu.

Dagokion erakundeak egindako ziurtagiria aurkeztu beharko da.

b) Erakunde pribatu bateko lanpostu batean aritu izana, antzeko edo pareko eginkizunetan, hau da, administrari eginkizunetan:

0,20 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko, eta gehienez ere 4 puntu.

Gizarte Segurantzak igorritako lan bizitzaren agiria aurkeztu beharko da, lan kontratuarekin edo enpresak emandako egiaztagiriarekin batera.

1. B) 6. oinarria. - Berriazko betekizunak:

Administrari laguntzaileen poltsa:

a) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradudun titulua edo baliokidea izatea.

Administrarien poltsa:

a) Batxilergo teknikoko titulua edo baliokidea izatea.

1. C) 9 oinarria. Balorazio Batzordea.

Balorazioa eta proposamenak soilik funtzionarioz osatutako Balorazio Batzorde batek egingo ditu. Batzorde hori gutxienez bost kidek osatuko dute, batzordeburuak, batzordekideak eta idazkariak, eta alkatetzaren ebazpen baten bidez izendatuko dira.

Ondorioz, 10 egun balioduneko epea irekitzen da, zuzenketa iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, administrari lan-poltsen deialdian parte hartu duten interesdunek, egoki baderitzote, administrari lanpostuan izandako esperientzia profesionala egiaztatzen duten agiriak aurkez ditzaten, goian adierazitako moduan.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Langraiz Oka, 2020ko otsailaren 20a

Alkate-lehendakaria

MIGUEL ÁNGEL MONTES SANCHEZ